

## SAN JUANGO KANTAITA

Egu bai egu honek San Juan dirudi  
ez da San Juan bañan hala alunbra bedi

Goazen San Juanera gaur arratsian  
etorriko gerala bihar goizean.

Goazen San Juanera beduratara  
beruatara eta han egotera.

Juan nintzan Frantziara etorri maiatzian  
zalditxo urdinian astuaren gainian.

San Juango iturriaren ondotik  
zazpi iturri urre kainuetatik  
zortzigarrrena metal zurietatik  
zortzigarrrena metal zurietatik  
San Juango iturrian dago ura berde  
amurraitxo freskuak hantxen dirade  
lemiziko eskuak ta gero musua  
San Juango iturriaren freskua!

Jesukristoren lengusuba da  
Aita San Juan Bautista  
aingeruak dantzan dabilta  
dabilta baia dabilta  
San Juanen pozian dabilta!

Andra mutur maketsa  
aingeruak dantzan dabilta  
dabilta baia dabilta  
San Juanen pozian dabilta!

*San Juan garagarrian denbora galantian!  
maizik eta garik ez dagonian etxian.*

Hala zuze zuze, hala gari gari, orain arte belar, hemendik aurrera gari!